

GALDERAK: 3. Ikasgaia

1. Merkatariak dira?

- Ileapaintzailea
- Notaria
- Higiezin agentea
- Burtsan negoziatzen duen agentea
- Igeltxero autonomoa
- Saltzaile anbulantea
- Kioskeroa
- Hirigintza-sustatzailea
- Botikaria
- Azokan bere produktuak saltzen dituen nekazaria
- Taxilaria

2. Lau lagun pizzeria batera joaten dira afaltzera. Pizzak eta entsaladak jan ondoren gaizki sentitzen dira eta ospitalera doaz. Egun batzuk beranduago botulismoa diagnostikatzeko zaie. Arazoa entsaladan zeuden olibetan egon da, Aceitunas Dominguez S.A. enpresak pizzeriari salduatakoetan. Nor demandatu beharko dute lagunek? Zer frogatu beharko dute?

Aztertu arazoa 2007ko LGCU aplikatuz (Ikus Asturiaseko Auzitegi Probintzialaren epaia, 2005.04.05ekoa)

3. A jauna B anderearekin ezkontuta dago irabazitako eraentzan, eta azken honek oinordetzan jasotako ehun fabrika kudeatzen du. Emazteak ez du nahi komunean dituzten ondasunekin enpresen zorretaz erantzutea eta hornitzaileei horrela jakinarazten die eskutitz ziurtatu bidez. Hainbat letra ordaindu gabekoak dituen hartzekodun batek fabrikaren baitura eskatzen du, baita bi kamioiena ere, Aren izenean erregistratuta dagoen patente bat eta bikoteak erositako akzio batzuk. Emaztea baituraren aurka azaltzen da bere ondasunak direlako edo M.K.ko 6. artikularen arabera erantzukizunetik kanpo daudelako. Arrazoi du emazteak?